



Deialdia, udaltzainen 5 plaza oposizio bidez betetzeko, Udaltzaingorako

Iruñeko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko abenduaren 22ean, Erabaki bidez onetsi zuen deialdia, honako oinarri hauekin bat:

OINARRIAK

1.-Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honen xedea da udaltzainen 5 plaza oposizio bidez betetzea, Iruñeko Udaltzaingorako, honako txanda hauetan banatuta, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 15.3. artikuluan ezarritakoarekin bat:

a) Txanda irekiko plazak:

– 2 lanpostu.

b) Igoera-txandako plazak, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileei zuzenduak.

– 3 lanpostu.

Plaza horiek izanen dira deialdi honetako prestakuntza prozesua amaitu aurretik deituko den lehiaketaren edo berariazko lehiaketaren ondorioz hutsik geratzen direnak, betiere horretarako behar diren betekizunak betetzen badituzte.

1.2. Igoera-txandako plazaren bat bete gabe geratuko balitz, txanda irekikoei gehituko litzaieke.

1.3. Era berean, igoera-txandan hutsik dauden plazak baino izangai gehiagok gainditzen badituzte probak, txanda horretan oposizioa gainditurik ere plazarik lortu ez dutenek aukera izanen dute txanda irekiko plaza hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia garbian eta eskuratutako guztizko azken puntuazioaren arabera, non batu eginen baitira ezagutza-probaren puntuazioak, proba fisikoenak eta proba psikoteknikoenak.

1.4. Deialdi honen ondorioz udaltzain izendatutako izangaiek polizia-eginkizunak beteko dituzte, Nafarroako Polizieiei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean eta hori



garatzen duten arauetan ezarritako eskubideak eta betebeharrak edukiko dituzte eta Foru Lege horrek ezartzen dituen mailetatik C mailaren barnean sartuko dira.

1.5. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da.

2.–Aplikatzekoa den araudia.

Prozedura honako arau hauen xedapenen arabera gauzatuko da: Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea, Nafarroako Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamendua onesten duen abenduaren 29ko 718/2003 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua, aplikatzekoak diren gainerako arauak eta deialdi honetako oinarriak.

3.–Izangaiei betekizunak.

3.1. Txanda irekia.

Izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte oposizio honetan txanda irekian onartuak izateko:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea.
- b) Gutxienez 18 urte edukitzea eta erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea indarreko legeekin bat.
- c) Batxilergoko edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketako titulua edo horien baliokidea den titulu bat edukitzea, edo hura erdiesteko maneran egotea, eskabideak aurkezteko mugaegunean.

Tituluak atzerrian lortu badira, eskaerak aurkezteko epea amaitzean homologatuta daudela frogatzen duten frogagiriak eduki beharko dira.

d) Deialdiaren jomuga den lanpostuak berezko dituen eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisiko eta psikikoak izatea, eta deialdiaren III. eranskinak jasotzen dituen ezein zio medikorengatik baztertzeko moduan ez egotea.

e) Doluzko delitu bat dela kausa kondenatua ez izatea, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik baztertua ere, edo eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez izatea, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauak jarraikitzea.

f) Ibilgailuak gidatzeko A2 eta B motako baimenak indarrean edukitzea.



g) Armak aldean eramateko konpromisoa, eta, behar izanez gero, erabiltzekoa. Horretarako, eskatzaile bakoitzak horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena eginen du.

3.2. Igoera-txanda.

Txanda irekiko izangaiek bete beharreko baldintzez gain, igoera-txandan aurkezten direnek honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Deialdiko plaza hutsen maila berekoak edo beheragokoak izatea.
- b) Nafarroako edozein Administrazio Publikotako langile finko izatea, erakunde horietan bost urtez aritu izana egiaztatzea eta borondatezko nahiz behartutako eszedentzian ez egotea, non eta borondatezko eszedentzian dagoen pertsona ez den lanean ari Iruñeko Udaleko zerbitzura beste lanpostu finko edo aldi baterako batean.
- c) Nafarroako Polizia Kidegoetako kidea edo Nafarroako Tokiko Polizia Kidegoetako beste zerbitzu batzuetakoa izanez gero, haietan benetan zortzi urte eman izana Nafarroako Polizia Kidegoetako langile gisara.

3.3. Betekizun horiek eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean beteta eduki beharko dituzte izangaiek, 3.1.f) oinarrian aipatutakoaren salbuespenarekin, kasu horretan nahikoa izanen baita oinarrizko prestakuntza ikastaroa (deialdiko 7.3.5 apartatuan aipatua) egiteko izangaien behin behineko zerrenda argitaratzen den egunean betetzea.

4.-Instantziak.

4.1. Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

- a) Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hogeit egun naturalekoa izanen da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.
- b) Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek eskabidea modu telematikoa aurkeztu beharko dute, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: "Izapideak eta lizitazioak", "Lan-eskaintzak", "Enplegu publikoa", "Enplegu publikoko deialdiak", deialdi honi dagokion aipamenean.



Azterketa-eskubideengatik eta espediente formalizatzeari ordaindu beharreko tasa 15,30 eurokoa da. Tasa modu telematikoan ordainduko da, eskabidea formalizatzeko unean, modu telematikoan ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingen da.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inolara ere ordeztuko eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

4.2. Eskaera online aurkezteko unean, igoera-txandako izangaiek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, lanean ari diren administrazioan horretarako esleiturik dagoen organoak emana, abiaburuko lanpostua, maila eta bertan duten antzintasuna egiaztatzeko.

5.-Onartuen behin-behineko zerrenda, erreklamazioak eta behin betiko zerrenda.

5.1. Oposizioan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpena emanen du, izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean zein Udalaren webgunean argitara dadin aginduko du. Horretarako, bi zerrenda eratuko dira, honako izangai hauei dagozkienak:

1. Txanda irekiko izangaiak.

2. Igoera-txandako izangaiak.

5.2. Baztertutako izangaiek aukera izanen dute 10 egun baliouduneko epean, behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta, erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko.

5.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea iraganik, eta hala badagokio, horiek ebatzita, Giza Baliabideetako zuzendariak izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko ebazpena emanen du, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratuko dira. Ebazpenak zehaztuko du oposizioa osatzen duten probak egiten hasteko tokia, data eta ordua. Oposizioa egingen da, 718/2003 Foru Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat, deialdia Nafarroako Aldizkarian argitaratu eta gutxienez bi hilabete iraganda.

5.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.



5.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi bertan ageri direnei aitortzen zaienik betetzen dituztela ebazpen honen bidez iragartzen den prozeduran eskatutako betekizunak. Hautapen-prozedura gainditu ondoren izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertzen denean egiaztatzen bada ez dutela betekizunen bat betetzen, interesdunek galdu egingen dituzte prozedura honetan parte hartzeagatik izaten ahal dituzten eskubide guztiak, ezertan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

6.-Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Osaera.

Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: José Francisco Ataun Roldán, Iruñeko Udaltzaingoko komisario nagusia.

Epaimahaiburu ordezkoa: Jesús Estanga Goñi, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.

Epaimahaikidea: José Viruel Zozaya, Iruñeko Udaltzaingoko inspektorea.

Ordezkoa: Rudy Romo Rey, Iruñeko Udaltzaingoko inspektorea.

Epaimahaikidea: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako goi-mailako teknikaria.

Ordezkoa: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako eta Antolaketako goi-mailako teknikaria.

Epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordearen ordezkaritza-organoek proposatutako ordezkari bat.

Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordearen ordezkaritza-organoek proposatutako ordezkari bat.

Epaimahaikide-idazkaria: Laura Itoiz Marrauren, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko Alorreko legelaria.

Ordezkoa: Victor Sarasa Astrain, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko Alorreko legelaria.

6.2. Eraketa eta jarduna.

Epaimahaiburuak deialdia eginda, epaimahaia eratuko da, probak egiten hasi baino lehen eta onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epearen barruan.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan.



Halaber, kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balioa eduki dezaten, epaimahaiburuak eta epaimahaikide-idazkariak, edo, bestela, haien legezko ordezkoei, bertan egon beharko dute.

Epaimahaiak gehiengoz erabakiko du deialdiaren oinarriak aplikatzean sortzen ahal diren arazo guztiei buruz.

Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote administrazio-prozeduraren arauetan abstentziorako ezarritako arrazoiren bat gertatzen bada, eta hori jakinarazi, deialdia egin duen organoari.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzeko, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aipatu aholkulariak zein bere espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

7.-Oposizioaren garapena.

7.1. Oposizioak bi hautapen-fase edukiko ditu; lehenean honako proba baztertzailak hauek egiten dira: I. eranskinen gaitegiaren gaineko proba, proba fisikoa, proba psikoteknikoa eta medikoa. Bigarren fasean, oinarritzko prestakuntza ikastaroa gainditu beharko da.

Izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko emanen den eabazpenean zehaztuko dira oposizioko lehen proba egiteko tokia, eguna eta ordua.

7.2. Hautapen-probetarako deialdi bakarra egiten da, eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena dutela joan beharko dute. Oro har, oposiziotik baztertuak izanen dira iragarritako data, ordu eta tokietan bertaratzen ez diren izangaiak, horretarako zioa edozein izanik ere.

Hautapen-faseko 7.3.1 oinarriaren a), b) eta c) letretan aurreikusitako proba bakoitzaren kalifikazio-aldia amaitutakoan, epaimahaiak argitara emanen ditu udal webgunean behin-behineko kalifikazioak, eta bost egun balioduneko epea emanen du izangaiek alegazioak aurkeztu ditzaten. Aurkeztutako erreklamazioak ebatzitakoan, epaimahaiak izangai guztien behin betiko puntuazioak onetsi eta udal webgunean argitaratuko ditu, eta kasuaren arabera gainditutako eta baztertutako izangaiak adieraziko dira, bai eta hurrengo probaren tokia, data eta ordua, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago.



7.3. Prozeduraren faseak, dokumentazioa, ikastarorako behin betiko onarpena, praktiketako funtzionarioen izendapena eta oinarrizko prestakuntza ikastaroa.

7.3.1. Prozeduraren faseak:

Hautapen-fasea honako proba hauek osatuko dute:

a) Proba teorikoa: test erako ariketa eginen dute izangaiek, I. eranskinetako gaitegian agertzen diren gaiei buruzkoa, non idatziz erantzun beharko baitute 100 galdera teoriko-praktikok osatutako galdetegi bat. Galdetegiko galdera guztietan hiru aukera egonen dira erantzuteko, eta horietako bakarra izanen da baliozkoa. Erantzun baliozko bakoitzeko 1,50 puntu jasoko dira, eta oker emandako erantzun bakoitzeko 0,50 puntuko balorazio negatiboa emanen da. Izangaiek ariketa egiteko izanen duten gehieneko denbora hura hasi aurretik zehaztuko da. Proban gehienez ere **150 puntu** eskuratzen ahalko dira. Bazterturik geratuko dira 75 puntura iristen ez diren izangaiak.

Proba horretan erreserbako zortzi galdera gehigarri txertatuko dira, azterketako galderaren bat baliogabetu behar izanez gero akatsen bat edukitzeagatik.

Epaimahaiaren iritziz baliorik gabeko are galdera gehiago egonez gero, horiek deuseztatuko dira eta ez dira kontuan hartuko azterketa zuzentzerakoan. Kasu horretan, galdera bakoitzaren eta akats bakoitzaren balioa proportzionalki handituko da, 150 puntu horiek galdera baliodunen kopuruaren artean banatuta.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunean indarrean dagoen araudiaren arabera erantzutea eskatuko da gai guztietan.

b) Gaitasun fisikoa neurtzeko proba: izangaiek deialdiaren II. eranskinean jasota dauden ariketa fisikoak egin beharko dituzte, eta horietako bakoitza baztertzaila izanen da.

Gaitasun fisikoko proba honetara txanda irekiko 12 izangai deituko dira gehienez, eta, beraz, txanda irekian izangai gehiagok lortuz gero proba teorikoan eskatutako gutxieneko puntuazioa, aipatutako proban behin betiko kalifikaziorik onenak lortzen dituztenek eginen dute aurrera. 12. postuan kalifikazio bera duten izangai bat baino gehiago baleude, toki horretan berdinduta dauden guztiek eginen dute aurrera. Txanda irekiko gainontzeko izangaiak deialditik kanpo geratuko dira. Igoera-txandan proba teorikoa gainditzen duten izangai guztiek eginen dituzte proba fisikoak.



Proban gehienez ere **40 puntu** eskuratzen ahalko dira. Proba hau osatzen duten ariketak epaimahaiak ezarritako ordenan eginen dira, eta egun bakar batean edo gehiagotan egitea erabakitzen ahalko du.

Proba honen ariketak honela kalifikatuko dira:

- Pisua jasotzeko proba (bankako press-a): 5 eta 10 puntu bitarte.
- Uretan aritzeko gaitasun-proba: 5 eta 10 puntu bitarte.
- Zalutasun-proba (Barrow testa): 5 eta 10 puntu bitarte.
- Erresistentzia-proba (Course Navette-ren testa): 5 eta 10 puntu bitarte.

Epaimahaiak ezarriko du proba fisikoak egiteko hurrenkera.

Proba guzti-guztietan gutxienez eskatzen den puntuazioa eskuratzen ez duten izangaia bazterturik geldituko dira.

Izangaia dopinaren kontrako kontrola egitera beharturik daude, dela ariketak egiten ari diren bitartean, dela beste edonoiz, epaimahaiak noiz eskatu eta orduan. Jardunbide debekatuak detektatzeko eta egiaztatze analisia behar den organo espezializatuak eginen ditu. Ondorio horietarako, debekatutzat jotzen dira Kiroleko Kontseilu Goreneko Lehendakaritzaren 2025eko abenduaren 2ko Ebazpenaren eranskinean jasota dauden substantziak, gai farmakologikoak, dopin-metodoak eta manipulazioak. Ebazpen horren bidez onetsi zen kirolean debekatuta dauden substantzia eta metodoen zerrenda (2025eko 295. Estatuko Aldizkari Ofiziala, abenduaren 9koa).

Bazterturik geldituko dira aipatu kontrolean positibo ematen duten izangaia eta kontrola egiteari uko egiten diotenak.

Debekatutako substantzia baten edozein kopuru antzemanaz gero, izangaia hautapen-prozesutik kanpo geratuko da, ezertan ukatu gabe kontraanalisia egiteko eskaera egiteko duen eskubidea eta egoki iruditzen zaizkion alegazioak kalifikazio-epaimahaiaren aurrean aurkezteko aukera.

Erantzukizunpeko adierazpena. – Gaitasun fisikoko probak egin aurretik, horiek eginen dituzten izangaiek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko dute, non berariaz adieraziko baitute badutela nahikoa baldintza fisiko eta osasun-baldintza probak egiteko. Adierazpena epaimahaiari emanen zaio deia egiten den unean. Adierazpena sinatzen ez dutenak edo sinatzeko moduan ez



daudenak, proba egiteko eskubidea galduko dute, eta prozesutik kanpo geldituko dira ondorio guztietarako.

Oinarri honetan jasotako proba fisikoak ikus-entzunezko bitartekoen bidez grabatuko dira. Horren helburu bakarra izanen da epaimahaiari elementu lagungarria ematea proben teknika eta exekuzio egokia epaitzeko orduan, kronometria proba izan ezik.

Epaile federatuek gainbegiratu eta zehaztuko dituzte oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera probak eta ondorengo emaitzak behar bezala egin diren.

c) Gaitasun psikoteknikoaren proba: proba batzuk egingen dira, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesioerakoaren eskakizunei noraino egokitzen zaizkien neurtu beharrez. Nafarroako Administrazio Publikoko Institutuaren Psikologia Aplikatuko Sailak egingen ditu probak, eta haien balorazioak lotesleak izanen dira epaimahaiarendako. Gaitasun psikoteknikoaren proban gehienez ere **50 puntu** lortzen ahal dira. Bazterturik geratuko dira 25 puntura iristen ez diren izangaiak.

Proba psikoteknikoa egiteko honako hauek soilik onartuko dira: aurreko bi probak gainditu dituztenen artean lehen probako eta bigarren probako kalifikazioak batuta guztizko puntuaziorik onena lortu duten txanda irekiko 6 izangaiak, eta barne-igoerako txandako pertsona guztiak. 6. tokian puntuazio bera duten izangai bat baino gehiago egonez gero, horiek denak onetsiko dira. Txanda irekiko gainontzeko izangaiak deialditik kanpo geratuko dira.

Probaren garapena:

- Profil profesioerakoaren zehaztea: NAPIko Psikologia Aplikatuko Sailak eta deialdiaren kalifikazio-epaimahaiak proposatuko dute, edo hark izendatzen dituen langileek, lanpostuaren behar eta eskakizunen jakitun badira. Azterketa horretatik abiatuta zehaztuko dira ebaluatu beharreko faktore edo gaitasunak eta funtzioak egoki garatzeko beharrezkoak diren eskakizunak. Profil profesioerakoaren proposamena epaimahaiari aurkeztuko zaio probak hasi aurretik onetsi dezan.

- Kalifikazio-epaimahaiaren arduraturik da, proben aurretik, garrantzitsutzat jotzen dituen kontuak bitarteko egokien bidez argitaratzeaz. Xede horretarako NAPIko arlo psikoteknikoko teknikariek koordinatuko da, eta horiek helaraziko



dizkiote profilean jasotako eta baloratu beharreko faktoreak eta zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak.

- Probak bi parte izanen ditu:
 - Lehenengoan, ariketa psikotekniko bat edo batzuk egingen dira. Nortasunari buruzko galdetegi orokorrak izaten ahal dira, edo lan-gaitasunei buruzkoak edo/eta trebetasunei buruzkoak.
 - Bigarrena banakako elkarriketa edo/eta talde-lan bat izanen da, lehen zatiko galdera-sortekin alderatzeko.

d) Proba medikoak. Epaimahaiak zehazten dituen izangaiei, deialdiko plazak baino gehiago izanik eta kalifikazio-epaimahaiak zehazten duen kopuruan, proba medikoak egitera dei egingen zaie, gaitasun psikofisikoa egiaztatu beharrez, deialdiaren 3.1 ataleko d) letran ezarritakoari jarraikiz.

Osasun-azterketa Iruñeko Udalaren Lan Osasuneko Zerbitzuak egingen du.

Proba medikoetan, izangaiek “gai” edo “ez gai” kalifikazioak jasoko dituzte. Bazterturik geldituko dira “gai” kalifikazioa jasotzen ez duten izangaiak.

NSLerako plazak. Eskuragarri dauden plaza guztiak zehaztu eta epaimahaiak osasun-azterketaren balorazioak jaso ondoren, epaimahaiak izangai onartuen zerrenda prestatuko du, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolarako plazak esleitzeko ekitaldian parte hartzeko, betiere lortutako puntuazioaren hurrenkeran, eta bi txandak kontuan harturik, irekia eta igoerakoa.

7.3.2. NSLerako plazen esleipena

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolarako plazak esleitzeko ekitaldia egingen da, zehazte aldera zeintzuek duten benetan tokia betetzeke dauden plazetan.

Ekitaldiaren xedea da plazak betetzea hautapen-faseko probetan eskuratutako puntuazio altuenaren arabera.

Epaimahaiak bi zerrenda egingen ditu horretarako, guztizko puntuazio handienetik txikienera ordenatuta; bata, igoera-txandako izangaiek osatua, eta bestea, izangai guztiek osatua. Dei egiten hasiko da, handienetik txikienera, lehenik igoera-txandako zerrendan agertzen direnei, txanda horretako plazak haiei esleitzeko. Horiek betetakoan, gauza bera egingen da izangai guztiak jasotzen dituen zerrendarekin txanda irekiko plazak betetzeko, salbu eta igoera-txandan jada hautaketa egin dutenen kasuan ezik.



Ekitaldi horren ondorioz sortuko den plaza esleituen zerrenda izanen da behinik-behin oinarrizko prestakuntza ikastaroa egiteko proposatuta dauden izangaiek osatzen dutena, eta izangaien kopurua ezin da izan deitutako plazen kopurua baino handiagoa. Epaimahaiak jendaurrean jarriko du zerrenda hori Udalaren iragarki-taulan eta webgunean, guztizko kalifikazioekin batera.

Izangaien puntuazio-berdinketak nola ebatzi. Berdinketarik egonez gero, lehen proban puntuazio handiagoa lortzen dutenen alde ebatziko da, eta hala ere berdinduta segitzen badute, bigarren proban lortutako puntuazioa kontuan hartuko da.

Aurreko irizpideei jarraituta ere, berdinketa hausten ez bada, epaimahaiak zozketa bakar batez ebatziko du horretarako deitutako ekitaldi publikoan.



7.3.3. Dokumentazioa eta ikastarorako behin betiko onarpena:

Oinarrizko prestakuntza ikastaroan parte hartu ahal izateko, behin-behinean onartutako izangaiak 10 egun balioduneko epea izanen dute aipatu zerrenda webgunean argitaratzen denetik hasita, deialdiaren 3.1 zenbakiko c), e) eta f) baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, epaimahaiko idazkariari zuzenduta:

- NANaren aurreko eta atzeko aldeen fotokopia.
- Batxilergoko edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketako tituluaren edo horien baliokidea den tituluaren aurreko eta atzeko aldeen fotokopia konpultsatua.
- Deialdian eskatutako gidabaimenen aurreko eta atzeko aldeen fotokopia konpultsatua.
- Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ez dela doluzko delitu bat dela kausa kondenatua izan, ez dela administrazio publiko baten zerbitzutik baztertua izan, eta ez dagoela eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauak jarraikitzen.
- Justizia Ministerioaren menpeko Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Zentralaren ziurtagiria, egiaztatzeko izangaiak ez duela aurrekari penalik, edo horiek ezereztatu direla.
- Su-armak eramateko eta, hala balegokio, horiek erabiltzeko konpromisoa hartzeko erantzukizunpeko adierazpena.
- Gizarte Segurantzaren txartelaren fotokopia.
- Diru-sariak zein kontutan jaso nahi eta horren titulartasunaren egiaztatzea, bankuak emandakoa.
- Halakorik balitz, deialdiaren 8.2 zenbakiaren laugarren paragrafoan aipatzen den aukera baliatzeko agiria.

Aurreko tramiteak bete eta gero, epaimahaiak behin betiko zerrenda jendaurrean jarriko du, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta jakitera emanen du zer izangai onartu diren oinarrizko prestakuntza ikastaroa egiteko.

Oinarrizko prestakuntza ikastaroan behin-behineko onartutako izangaien batek eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean edo osasun-azterketa gaiturik ezean,



haren ordeztu beste bat sartuko da behin betiko zerrendan, nor eta gaitu duten izangaietan puntuaziorik altuena eduki eta gaitutako betekizunak betetzen dituen.

7.3.4. Praktiketako funtzionarioen izendapena.

Udaltzain izateko oinarritzko prestakuntza ikastaroan parte hartzen duten izangaiak Iruñeko Udaleko praktiketako funtzionario izendatuko dira Giza Baliabideetako zuzendariaren ebazpen baten bidez, salbu eta aurrez Nafarroako Administrazio Publiko bateko funtzionarioak badira.

7.3.5. Oinarritzko prestakuntza ikastaroa.

Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak (ESEN) emanen du oinarritzko prestakuntza ikastaroa, gaitu beharrekoa izanen dena; izan ere, izangaiak ikastaroko arlo guztiak gaitu beharko ditu, gehienez ere 500 puntu lortuta. Honako arau hauek zedarrituko dute ikastaroa: Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen irailaren 12ko 113/2005 Foru Dekretua eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak.

Oinarritzko prestakuntza ikastaroan, izangaiak kalifikatuko dira lortutako guztizko puntuazioaren ordenaren arabera, eta Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak pertsona horiei zentzu horretan ematen dizkien kalifikazioak lotesleak izanen dira kalifikazio-epaimahaiarendako. Hori horrela, epaimahaiak deialdi honetan ezartzen den aipatutako balorazioaren arabera esleituko ditu kalifikazioak, eta oinarritzko prestakuntza ikastaroa gaitu ez duten izangaiak kanporatuko dira.

Azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legearen 34.3 eta 45.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat, izangaien batek lehendik gaitututa badu deialdian eskatutako ikastaroaren antzeko bat, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak antolatua, aski izanen da aipatu Eskolak ikastaro hori baliozkotzea. Hori frogatzeko, egiaztagiri ofiziala aurkeztuko da, ikastaroetako edukien berdintasuna edo baliozkotasuna frogatzen duena, eta baliozkotutako ikastaroan edo ikastaroetan lortutako kalifikazioak. Egiaztagiri hori aipatu Eskolak egiten du, interesdunak eskatuta. Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolari dagokio, orobat, beste ikastaro eta diploma batzuk osorik edo partzialki baliozkotzea, antzeko eginkizunak dituzten organismo publikoek eman badituzte, edo Eskolak berak lehenago eman baditu, betiere edukiak baliokideak badira. Halakoetan, kasuan-kasuan dagokion kalifikazioa ere emanen du.

Ikastaroak dirauen bitartean, bertan parte hartzen duten izangaiak C mailaren oinarritzko soldata pertsonalari dagozkion lansariak jasoko dituzte, bai eta, honela badagokie, familia-laguntza ere.



Ikastaro batean onartuak izan eta jada funtzionario-izaera daukaten izangaiak jarduneko zerbitzuaren administrazio-egoeran egonen dira ikastaroak dirauen aldian, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzekin bat. Zehazki, langile horiek eskubidea edukiko dute beren graduari eta antzinatasunari dagozkien lansariak jasotzeko.

Bestetik, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko dira eta alta emanen zaie, salbu eta lehendik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen eskubide pasiboen beste araubide batean afiliatuta bazeuden. Halakoetan, horrexetan segituko dute.

Praktiketako funtzionario izateak ez du ematen eskuratu nahi den lanpostuari dagokion eskubiderik.

Oinarrizko prestakuntza ikastaroan baja emateak berekin ekarriko du kasuan kasuko izangaiak jarraitzeko eskubidea eta praktiketako funtzionarioaren izaera galtzea. Gertatzen denean, deialdia egin duen organoari jakinarazi beharko zaio. Baja hori Udolari jakinaraziko dio epaimahaiak.

Oinarrizko prestakuntza ikastaroan onartua izan baino lehen egindako osasun-azterketaz gain, izangaiak edozein unetan agintzen zaizkien osasun proba guztiak pasatu beharko dituzte, deialdiaren 3.1. d) apartatuan aipatzen den baldintza betetzen segitzen duela frogatzeko. Proba horien bidez egiaztatzen bada baztertzeko arrazoirik badela, epaimahaiak erabakiko du izangai horiei baja ematea hautapen-prozesuan, eta, ondorioz, praktiketako funtzionario izaera galduko dute.

Oinarrizko prestakuntza ikastaroa gaingitzen duten izangaiak, hautapen-prozesuan gaitasun psikofisikoa galtzeagatik baja ematen ez bazaie, praktiketako funtzionarioak izaten segituko dute eskuratu nahi duten plazaz jabetu arte.

7.3.6. Azken kalifikazioa.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa zein den jakiteko hautapen-prozesu osoko puntuazio guztiak batuko dira, hau da, hautapen-fasean gehi Oinarrizko prestakuntza ikastaroan lortutakoak.

8.-Izendapena eta lanpostuaz jabetzea.

8.1. Izendapena.



Behin oinarritzko prestakuntza ikastaroa amaitutakoan, epaimahaiak argitara emanen du gairitu dutenen zerrenda, guztira lortu duten puntuazioaren hurrenkeran, eta izendapen-proposamena eginen du gairitu duten izangaien alde.

Oinarritzko prestakuntza ikastaroa amaituta, izangaiak zin egin edo hitza eman beharko dute Nafarroako Foru Eraentza errespetatu eta defendatuko dutela, Konstituzioari eta Legeei men eginen dietela eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituztela.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez, Iruñeko Udaleko funtzionario eta udaltzain izendatuko dira oposizioa gairitu duten eta aurreko atalean xedatutakoa betetzen duten izangaiak, betiere txanden hurrenkeraren eta lortutako azken puntuazioaren arabera.

Izendapen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Behin prestakuntza ikastaroa amaitu eta ikastaroa baliozkotu zaion izangaiak hautatutako polizia-kidegora sartutakoan, lanpostuaren jabetzak berekin ekarriko du berariaz uko egitea ordura arte betetzen ari zen lanpostuari, eta lanpostuaren erreserbarik gabeko borondatezko eszedentzian geratzea.

8.2. Lanpostuaz jabetzea.

Izendatutako izangaiak izendapenean zehazten den egunean hartu beharko dute plazaren jabetza.

Plazaz jabetzeak berekin ekarriko du praktiketako funtzionario-izaera galtzea.

Ezarritako egunean lanpostuaz jabetzen ez direnek –ezinbesteko kasuetan izan ezik– Iruñeko Udalean sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaprobak gairitu eta deialdiaren xede diren lanpostuetarako izendatuak izan ondoren, Udalean sartu eta funtzionario bihurtzen diren izangaiak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatuko dira, eta alta emanen zaie araubide horren babesean, salbu jadanik afiliaturik badaude edo Nafarroako Administrazio Publikoetako Eskubide Pasiboen eta Osasun eta Gizarte Laguntzako beste araubide batean izena emanak badira; orduan, eta izendatu aitzin, aukeratzen ahalko dute babes araubide horretan segitzea edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatzea.

9.–Datu pertsonalen babesa.



Datuen babesa. Iruñeko Udala da botere publikoez baliatuz lan-deialdiak kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalen trataeraren arduraduna.

Lege-oinarria: 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari buruzkoa, eta eskabidea aurkeztean emandako baimena.

Datuak gordetzeko epea: datuak aipatutako xedea bete arteko denboran gordeko dira, eta biltegiatuta egonera dira datu horien tratamenduagatik Udalari erantzukizunik etortzen ahal zaion bitartean. Halaber, bete beharrekoak dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak ezarritako kontserbazio-arauak.

Datuen hartzaileak: datuak organo judizialei eta sindikatuen ordezkariak lagatzen ahal zaizkie, indarreko legeak betez, eta argitara emanen dira Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan, deialdian adierazitakoarekin bat.

Eskubideak: jakitera ematen dizugu eskubidea duzula datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta beste zenbait eskubide gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001 Iruña) edo egoitza elektronikora joz (www.pamplona.es/eu). Halaber, interesdunek erreklamazio bat egin dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (Jorge Juan k., 6, 28001, Madril) idazki bat aurkeztuta edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).

10.–Errekurtsoak.

Deialdi honen nahiz oinarrien eta deialdia aplikatzeko egintzen aurka, errekurso hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintzaren erabakia argitaratu edo jakinarazi eta hortik aitzina.



Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazpena egiteko.

Iruñean, 2025ko abenduaren 22ean .–Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabala.



I. ERANSKINA.–LEHEN PROBARAKO GAITEGIA (TEORIKOA)

ZATI JURIDIKOA

1.–1978ko Espainiako Konstituzioa: Atarikoa. Atariko titulua. I. titulua: Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak. III. titulua: Gorte Nagusiak. IV. titulua: Gobernua eta Administrazioa. VI. titulua: Botere Judiziala.

2.–7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak. I. titulua: Xedapen orokorrak. II. titulua: Udalerria. V. titulua: Toki-erakundeei buruzko xedapen orokorrak. VII. titulua: Toki-erakundeetako langileak. X. titulua: Biztanle-kopuru handiko udalerrien antolakuntzako araubidea. XI. titulua: Zenbait gairi buruzko arau-haustea eta zehapenak toki-erakundeek tipifikatzea.

3.–6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa. I. tituluaren barruan: Entitate lokalen antolamendua eta administrazioa, I. kapitulua: Udalak. III. tituluaren barruan: Nafarroako Entitate Lokalen funtzionamendua. Hiritarren partaidetza eta informazioa, I. kapituluko 1. eta 2. atalak: Nafarroako Toki Entitateen funtzionamendua.

4.–2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoena.

5.–25/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena. I. titulua. Xedapen orokorrak. II. titulua. Funtzionario publikoak. I. kapitulua. Hautaketa. II. kapitulua. Funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea. III. kapitulua. Mailak eta graduak. IV. kapitulua. Administrazio-karrera. V. kapitulua. Plantilla organikoak, funtzionario-zerrendak eta espediente pertsonalak. VI. kapitulua. Egoera administratiboak.

6.–10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa. Atariko titulua: Berme-penalen eta Zigor-legearen aplikazioari buruzkoa. I. titulua: Arau-hauste penala. II. titulua: Delituei dagokienez erantzukizun penala duten pertsonak.

7.–14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko. I. titulua. Xedapen orokorrak. IV. titulua. Emakumeen kontrako indarkeriaren detekzioa eta arreta. VII. titulua. Poliziaren arreta eta babes eraginkorra.



8.-3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriari buruzkoa: berdintasunaren printzipioa eta bazterkeriaren kontrako babesa. 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, emakumeen eta gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

9.-1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onesten duena: II. liburua: I. titulua: Zehapena, III. titulua: Polizia judiziala, VI. titulua: Zitazioa, atxiloketa eta behin-behineko espetxealdia. VIII. titulua: I. kapitulua: Toki itxian sartu eta hori miatzea. IV. liburua: Prozedura bereziak, II. titulua: Prozedura laburtua, II. kapitulua: Polizia judizialaren eta Fiskaltzaren jarduna. III. titulua: Delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura.

10.-6/1984 Lege Organikoa, maiatzaren 24koa, «Habeas Corpus» prozedura arautzen duena.

11.-23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Polizieiei buruzkoa.

12.-4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babestekoa. Atariko: I. kapitulua: Xedapen orokorrak, II. kapitulua: Dokumentazio eta identifikazio pertsonala, eta III. kapitulua: Herritarren segurtasuna mantentzeko eta berrezartzeko jarduketak, eta V. kapitulua: Zehapen araubidea

13.- 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.

14.- 1428/2003 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorra onesten duena, Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia, aplikatzeko eta garatzeko.

15.- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua: Xedapen orokorrak. I. titulua: Prozeduran interesdun direnak, I. kapitulua: Jarduteko gaitasuna eta interesduna kontzeptua. II. titulua: Administrazio publikoen jardura, I. kapitulua: Jarduketa-arau orokorrak eta II kapitulua: Epe-mugak eta epeak. III. titulua: Administrazio-egintzak, I. kapitulua: Administrazio-egintzen betekizunak, II. kapitulua: Egintzen eraginkortasuna, III. kapitulua: Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. V. titulua: Egintzak administrazio-bidetik berrikustea, I. kapitulua: Ofiziozko berrikuspena, eta II. kapitulua: Administrazio-errekurtsoak.



16.-Iruñeko Udalaren Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia. Laburpen exekutiboa.

ZATI SOZIALA

1. Gaztelaniaren ortografia. Ortografia-arauak. Letren edo grafemen erabilera. Tiletaren, ortografia-zeinuen eta letra larri eta xeheen erabilera. Lexiko-unitateen adierazpen grafikoa. Beste hizkuntza batzuetatik datozen esamoldeen, izen propioen eta zenbaki-adierazpenen ortografia.
2. Gaztelaniaren gramatika. Morfologia. Atzizkiak, substantiboak eta izenordainak. Adjektiboak: haien graduak eta motak. Adberbioak eta haien motak. Aditzak: moduak eta jokabideak. Preposizioak eta juntagailuak. Sintaxia. Perpausa: zatiak eta motak. Analisi sintaktikoa.
3. Poliziaren etika eta deontologia:
 - Jokabide-kodea, legea betearazi behar duten funtzionarioendako (34/169 Ebazpena, 1979ko abenduaren 17koa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak emana).
 - 690/1979 Ebazpena, Europako Kontseiluaren Parlamentu Batzarrak emana, poliziaren gaineko deklarazioa egiten duena.
 - 10. Gomendioa (2001), Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Europar Batasuneko Estatuei emandakoa, Poliziaren Etikari buruzko Europako Kodearen gainekoa (Ministroen Kontseiluak 2001eko irailaren 19an onetsia, Ministroen Delegatuen 765. bilkuran).
4. Iruñeko hiri-inguruneari buruzko ezagutza (geografia, kale-izendegia, erakundeak, zerbitzu publikoak...).
5. Iruñeko historia. De Castejón, M. G. (2023). Un león anda suelto: historia (s) de Pamplona/Pedro del Guayo; Iruñeko Udala, 2023; ISBN: 978-84-89590-32-8. Pregón siglo XXI, (68), 122.
6. Zuzenbidea: Kontzeptua eta adierak. Arau juridiko positiboak: Kontzeptua, egitura, motak eta izaerak. Arau-hierarkiaren printzipioa. Pertsona, zentzu juridikoan: Kontzeptuak eta motak; sortzea eta azkentzea; gaitasun juridikoa eta



jarduteko gaitasuna. Espainiako nazionalitatea eskuratzea, mantentzea eta galtzea. Egoitza. Auzotasun zibila.

7. Windowsen oinarriko funtzioak: idazmahaiaren zatiak eta funtzionamendua (ikonoak, zuzeneko sarbideak), hasierako barraren zatiak eta funtzionamendua, Windowseko arakatzailerak.
8. Word programari buruzko oinarriko ezagutzak: testuak sartu eta gordetzea; karaktereen, paragrafoen eta dokumentuen formatua; taulak eta haien formatua; testuak zuzentzea.
9. Excel programari buruzko oinarriko ezagutzak: elementuak (liburuak, orriak, gelaxkak) ezagutzea, oinarriko formulak sartzea, grafikoak egitea, formatua ematea.
10. Drogamenpekotasunak. Kontzeptuak: droga, kontsumitzailea, hartzeko moduak, mendekotasuna, tolerantzia, politoxikomanoak. Drogen sailkapena. Gure gizarteko azken joerak drogen kontsumoan.

II. ERANSKINA.- BIGARREN PROBARI DAGOZKION ARIKETAK (GAITASUN FISIKOKOAK)

1.-Uretan aritzeko gaitasun-proba (50 metro estilo librean).

Arnasketa-mekanismoen kontrola eta uretan aritzeko egokitzapen-gaitasuna baloratuko dira.

Deskribapena: joan-etorria egin behar da igerian, crawl estiloan edo estilo librean, 25 metroko igeri-ontzi batean. Irteera igerilekuaren ertzetik egingen da, irteteko blokeira igo gabe.

Ezin izanen da erabili neoprenozko jantzirik, urpeko betaurrekorik, ezta urpean ibiltzeko beste baliabiderik ere, baina bai igeri egiteko betaurrekoak. Ezin izanen da proba igerileku barrutik hasi.

Gauzatzeko modua: seinalea entzun ondoren, bere postuan eta txilibitu hotsarekin bat, izangaia uretan murgilduko da, eta 50 metro igerian egingen ditu (joaneko 25 metro, lehena, eta itzuliko 25 metro, bigarrena). Igerilekuaren ertzetik atera beharko da, zutik jarrita (bi oinak lurrean) eta geldirik. Irteteko, ez da inolako blokerik edo euskarririk erabiliko.

Saialdi bakarra egingen da. Saialdia baliogabetzat joko da, eta baztertzeko arrazoi, baldin eta izangaiak:



- Kortxo-ilarak edo igerilekuko alboko kaleak euskarri moduan edo bulkada hartzeko erabiltzen baditu.
- Igerilekuko ertzei heltzen badie atsedean hartzeko.
- Igerilekuaren hondoa bermatzen bada edo hura erabiliz bulkada hartzen badu.
- Kalez aldatzen bada.
- Noranzkoa aldatzean horma ukitzen ez badu.
- Baliorik gabeko bi irteera egiten baditu.

Puntuazioa: eskala honen arabera emanen da (denbora segundotan neurtua, segundo-ehunenak ez baitira kontuan hartuko).

DENBORA (GIZONAK)	DENBORA (EMAKUMEAK)	OHARRA
42" edo gehiago	48" edo gehiago	Baztertua
41"9 eta 39" artean	47"9 eta 45" artean	5,0
38"9 eta 37" artean	44"9 eta 43" artean	5,5
36"9 eta 36" artean	42"9 eta 42" artean	6,0
35"9 eta 35" artean	41"9 eta 41" artean	6,5
34"9 eta 34" artean	40"9 eta 40" artean	7,0
33"9 eta 33" artean	39"9 eta 39" artean	7,5
32"9 eta 32" artean	38"9 eta 38" artean	8,0
31"9 eta 31" artean	37"9 eta 37" artean	8,5
30"9 eta 30" artean	36"9 eta 36" artean	9,0
29"9 eta 29" artean	35"9 eta 35" artean	9,5
28"9 edo gutxiago	34"9 edo gutxiago	10,0


2.-Zalutasun proba (Barrow testa).

Abiatzeko jarrera: zutik zutoinaren ondoan, irteera marraren atzean.

Egitea: probaren xedea da bost zutoinek mugatutako "zortzi" formako zirkuitu bat ahalik eta azkarren igarotzea; zutoinetako lauk 8,66 bider 5 metroko laukizuzen baten erpinak seinalatzen dituzte, eta bosgarrena erdi-erdian dago (ikus grafikoa). Izangaiek bi aldiz egin behar dute zirkuitua, behin alde batera, behin bestera (A eta B ibilbideak grafikoa). Ibilbide bakoitzean, bi saialdi egin daitezke. Bigarren saialdia egiten da, bakar-bakarrik, lehenbizikoa baliogabea izan bada. Minutu bateko atsedena egiten utziko da bigarren saialdia egin baino lehen.



– Zirkuituaren eskema:



Ariketa hau egiteko 24"5 eta 26"2 segundo utziko dira gehienez ere, hurrenez hurren, gizonendako eta emakumeendako.

Saialdia deuseztzat joko da izangaiak:

- Zutoin bat botatzen badu.
- Zutoin bat hartzen badu, eror ez dadin.
- Ibilbidetik ateratzen bada, hau da, lasterketako marra idealetik ateratzen bada (nahiz eta ibilbide zuzenetik itzuli).

Puntuazioa: izangaiak bi ibilbideak egiteko (A + B) behar izan duten denbora batuko da, fotozelulak irakurri bezala, ehunenetan, kontuan hartuz ariketa bukatzen dela izangaiak irteera marra berriz gurutzatzen duenean. Segundo-ehunenak ez dira kontuan hartuko bi denboren azken baturan. Fotozelularen sistemak huts egiten badu, erreserbako eskuzko kronometrajea aplikatuko da.

DENBORA (GIZONAK)	DENBORA (EMAKUMEAK)	PUNTUAZIOA
24" 5 baino gehiago	26" 2 baino gehiago	Baztertua
24"5 eta 24"0 artean	26"2 eta 25"8 artean	5,0
23"9 eta 23"6 artean	25"7 eta 25"4 artean	5,5
23"5 eta 23"3 artean	25"3 eta 25"1 artean	6,0
23"2 eta 23"0 artean	25"0 eta 24"8 artean	6,5
22"9 eta 22"7 artean	24"7 eta 24"5 artean	7,0



22"6 eta 22"4 artean	24"6 eta 24"4 artean	7,5
22"3 eta 22"1 artean	24"3 eta 24"1 artean	8,0
22"0 eta 21"8 artean	24"0 eta 23"8 artean	8,5
21"7 eta 21"5 artean	23"7 eta 23"5 artean	9,0
21"4 eta 21"3 artean	23"4 eta 23"3 artean	9,5
21"2 edo gutxiago	23"2 edo gutxiago	10,0

3.- Bankako Pressa.

Deskribapena: banku batean etzanda, ahoz gora, eta oinak euste-zoruan dituela, izangaiak pisu bat goratu beharko du 60 segundoan ahal duen aldi guztietan. Pisua 38 kilokoa izanen da gizonezkoendako, eta 25 kilokoa emakumeendako. Bi eskuekin goratuko du pisua barrari esku-ahurraz helduta eta atzamarrak itxita, eta eskuen arteko espazioa ez da izanen 80 cm baino gehiagokoa barrari eusten dioten hatz erakusleen artean. Ariketa honela egingen da: hasieran barrak bularra ukitzen du, ukondoak tolesturik, eta gero ukondoak erabat luzatzen dira bertikalean jarri arte. Izangaiak saialdi bakarra izanen dute proba hau egiteko.

Ezin da eskularrurik erabili, ez heldzea errazten duen beste edozein substantzia, ezta soineko jantzia kendu ere bizkarra bankuan zuzenean bermatzeko. Jantzia praken barrutik sartu behar da, eta bermatuko da gorputzari hertsaturik dagoela.

Ariketaren hasieran ukondoak flexionatuak egonen dira eta barrak bularra ukituko du. Proba hastean oinek lurzorua ukitu behar dute. Ariketak irauten duen denbora guzti-guztian, oinek lurzorua ukitzen egon beharko dute.

Jasoaldia baliogabetuta geratuko da (beraz, ez da zenbatuko) honako kasu hauetan:

- Ukondoak erabat luzatzen ez badira.
- Ukondoen flexio bakoitzean barra bularrarekin ukitzen ez bada.
- Oin batek edo biek lurzorua ukitzeari uzten badiote.

Ariketa **bukatutzat emanen da** honako kasu hauetan:

- Izangaiak ukondoak flexionaturik dituela, ariketa gelditzen badu barra bularrean bermatuz.



Puntuazioa: egindako errepikapenen arabera izanen da, eskala honi jarraikiz:

ERREPIKAPENAK (GIZONAK)	ERREPIKAPENAK (EMAKUMEAK)	OHARRA
30 baino gutxiago	20 baino gutxiago	Baztertua
30 eta 35 bitarte	20 eta 25 bitarte	5,0
36 eta 41 bitarte	26 eta 31 bitarte	5,5
42 eta 46 bitarte	32 eta 36 bitarte	6,0
47 eta 51 bitarte	37 eta 41 bitarte	6,5
52 eta 55 bitarte	42 eta 45 bitarte	7,0
56 eta 59 bitarte	46 eta 49 bitarte	7,5
60 eta 62 bitarte	50 eta 52 bitarte	8,0
63 eta 64 bitarte	53 eta 54 bitarte	8,5
65	55	9,0
66	56	9,5
67 edo gehiago	57 edo gehiago	10,0

4.- Erresistentzia proba (Course Navette testa).

Nola egin: izangaiek, ahalik eta denbora luzeenean, 20 metroko luzerako joan-etorriko ibilbide bat egin beharko dute, zinta magnetofoniko batek erreproduzitutako hots-seinaleen bidez markatzen den erritmoan. Izangaiek ibilbidearen bi muturrak markatzen dituzten lineak zapaldu edo gainditu beharko dituzte txandaka seinalea jotzearekin bat. Biraketak oin baten gainean pibotatuz egin behar dira, lerroa zapalduz edo gaindituz. Zintak tarte erregularretan emanen du soinua. Probaren hasieran abiadura motela izanen da, baina pixkanaka abiadura handituz joango da. Izangaiek saialdi bakarra izanen dute proba hau egiteko.

Testaren helburua zinta magnetofonikoak ezarritako erritmoari eustea da, eskatutako aldiak bete arte. Izangaia behin baino gehiagotan abiatzen bada seinalea entzun baino lehentxeago, abisu bat emanen zaio. Izangaia seinalea baino lehen ateratzen bada eta metro bateko tartetik haratago joan bada, probari bukaera emanen zaio besterik gabe.



Honako egoera hauek gertatuz gero, izangai bakoitzaren proba bukatutzat emanen da, eta ordura arte egindako denbora-tarteak kontatutako dira:

- Izangaia gelditu egiten bada, 20 metroko marraren gainean pibotatzen ari denean seinale akustikoaren zain une batez gelditzen denean izan ezik.
- Izangaia bere kaletik ateratzen bada.
- Izangaiak ibilbide oso bat bukatzea lortzen ez badu muturreko marra edo haratago zapalduz.
- Seinale akustikoa entzuten denean, izangaia 20 metroko marratik metro bateko eremura iritsi ez bada.
- Izangaiak hiru aldiz jarraian ez badu lortu seinale akustikoarekin batera muturreko marra edo haratago zapaltzera iristea. Seinaleak jotzen duen unean, marratik metro bateko tartera egotea onartuko da. Segurtasun metroaren barruan egonda, izangaiak ez badu marra zapaltzen seinale akustikoak jo baino lehen, izangaiari abisu bat emanen zaio, kontrolatzailearen ezker-eskuin jarriko den kono baten bidez. Abisu hori kendu egingo zaio seinale akustikoa jotzean 20 metroko beste linea ukitzea lortzen badu. Bestela, beste abisu bat izanen du. Bi abisu izanda, izangaia 20 metroko beste lineara iristen bada hots-seinalearekin batera, biak kenduko zaizkio; bestela, hirugarren abisua emanen zaio eta proba amaituko du.

Puntuazioa: izangai bakoitzak proba bukatzen duen arte pasatako denbora-tarteen arabera izanen da (tarte bakoitza minutu batekoa da gutxi gorabehera), honako eskala honi jarraikiz:

DENBORA-TARTEAK (GIZONAK)	DENBORA-TARTEAK (EMAKUMEAK)	PUNTUAZIOA
10 baino gutxiago	8,0 baino gutxiago	Baztertua
10,0	8,0	5,0
10,5	8,5	5,5
11,0	9,0	6,0
11,5	9,5	6,5
12,0	10,0	7,0
12,5	10,5	7,5



13,0	11,0	8,0
13,5	11,5	8,5
14,0	12,0	9,0
14,5	12,5	9,5
15,0 edo gehiago	13,0 edo gehiago	10,0

III. ERANSKINA. – BAZTERTZE MEDIKOETARAKO TAULA

1.–Ikusmena. Begien sistema:

–Ikusmen–zolasuna zuzentzailerik gabe:

- 4/10 bi begietan, edo
- 3/10 begirik okerreanean eta 5/10 hoberenean, edo
- 2/10 begirik okerreanean eta 6/10 hoberenean.

–Ikus–eremu monokularra: Plano horizontalean, ez da 120°-tik beherakoa izanen, eta ez da murrizketa nabarmenik izanen ikus–eremuaren ezein meridianotan.

–Diplopia.

–Diskromatopsia sakonak.

–Estereopsia eza.

–Keratotomia erradiala.

2.– Entzumena. Entzuteko sistema:

–500 eta 3.000 Hz bitarteko frekuentzietan 45 dB edo gehiagoko galera monoaurala dakarren entzumen–zolasuna.

–Edozein etiologiako oreka–alterazioak.

3.–Hizkuntza:



Disfoniak, disfemiak (toteltasuna), disartria eta diglosia iraunkorrak, polizia lanetan aritzea zaildu edo galarazten dutenak.

4.-Giharren eta eskeletoaren aparatua:

–Edozein artikulaziotako ankilosia edo galera anatomikoak, haien eragin funtzionalaren arabera.

–Giltzaduretako prozesuak, funtzionaltasunean duten eraginaren arabera, etiologia edozein izanik ere.

–20° baino gehiagoko eskoliosiak.

–30° baino gehiagoko zifosiak.

–Espondilolisia, espondilolistesia, ornoen bategiteak eta ornoarteko diskoaren arazoak.

–Espondilitis ankilosatzailerak.

–Pageten hezur-gaixotasuna.

–Osteoporosia eta osteomalazia (funtzionaltasunean duten eraginaren arabera).

–Fibromialgia.

–Deformazio anatomikoak (funtzionaltasunean duten eraginaren arabera).

5.-Digestio-aparatua:

–Crohn-en gaixotasuna eta kolitis ultzeraduna.

–B eta C hepatitis aktiboak edo eramaile-egoerak.

–Gibeleko gutxiegitasuna, ebaluazio-epaimahaiak baloratu beharrekoa.

–Gibeleko zirrosia.

–Zirrosi biliar primarioa.

–Pankreatitis kronikoa.

–Fibrosi kistikoa.

–Pareta abdominaleko hernia, ebaluazio-epaimahaiak baloratu beharrekoa.

–Uzki-esfinterraren gutxiegitasuna.



6.–Sistema kardiobaskularra:

- Bihotz gutxiegitasuna, gradua edozein dela ere.
- Arritmiak eta blokeoak: Aurre-eszitazioaren sindromeak eta erritmo edo kondukzio kardiakoaren edozein nahasmendu, honako hauek salbu: arritmia sinusala, edo estrasistole suprabentrikular edo estrasistole bentrikular isolatuak, lehen mailako aurikula-bentrikuloaren blokeoa, eskuineko adarreko blokeo osoa eta ezkerreko adarreko hemiblokeoak.
- Kardiopatia iskemikoa, gradua edozein dela ere.
- Balbulopatiak.
- Miokardiopatiak.
- Perikardiopatia kronikoak.
- Biriketako hipertentsio primario eta sekundarioa.
- Arterietako iskemia kronikoaren sindromea.
- Arterietako hipertentsioa (TAS > 140 eta TAD > 90)
- Hipotentsioa (TAS < 90 eta TAD < 45).
- Bena- eta linfa-gutxiegitasuna.

7.–Arnas-aparatua:

- Arnas aparatuko gaitz kronikoak (bronkitis kronikoa, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, enfisema, bronkiektasiak).
- Pleurako isuri errepikatuak.
- Berezko pneumotorax errepikatua.
- Gaixotasun interstizialak eta/edo biriketako fibrosia.
- Asma eta bronkioetako hiperreaktibitatea.

8.–Nerbio-sistema:

- Epilepsia.
- Esklerosi anizkoitza eta beste gaixotasun desmielinizatzaile batzuk.



- Neurona motorraren gaixotasunak.
- Ataxiak.
- Goi-mailako funtzioen eta integrazio-funtzioen nahasmenduak (arrazoibide abstraktua, memoria, judizioa eta exekuzio-funtzioak).
- Parkisonen gaixotasuna eta bestelako nahasmendu estrapiramidalak.
- Gaitz baskular iskemikoak, hemorragikoak eta malformazio eragileak.
- Miastenia larria eta lotura neuromuskularreko beste nahasmendu batzuk.
- Zorabioak.
- Siringomielia.
- Hidrocefalia.
- Miopatiak.
- Lesio zentralaren ondoriozko paralisia.
- Paralisi periferikoak, funtzionaltasunean duten eraginaren arabera.
- Nerbio-sistema periferikoko gaixotasunak, funtzionaltasunean duten eraginaren arabera.
- Neke kronikoaren sindromea.
- Anosmia.
- Mugimenduaren beste nahasmendu batzuk (tikak, mugimendu-estereotipiak, loaren nahasmenduak), ondorio sozio-profesionalen arabera.

9.-Nahasmendu psikiatrikoak:

- Nahasmendu mental organikoak, prozesu automugatuak eta itzulgarriak izan ezik.

Sustantzia psikotropikoen (alkohola barne) ondoriozko buru- eta portaera-nahasmenduak.

- Eskizofrenia eta bestelako nahasmendu psikotikoak.
- Aldarte-nahasmenduak (nahasmendu bipolarrak, depresio-arazo errepikariak, depresio-aldi handia, nahasmendu distimikoak).
- Antsietate-nahasmenduak, ondorio kliniko esanguratsuekin.



–Pertsonalitatearen eta bulkaden kontrolaren nahasmenduak, eragin sozioprofesionala dutenak.

10.–Sexu- eta gernu-aparatua:

– Giltzurrun-gutxiegitasuna, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

–Gernu-ihesa.

–Giltzurrun-polikistosisa.

11.–Sistema endokrinologikoa:

–Ardatz hipotalamo-hipofisarioko nahasmenduak.

–Hipertiroidismoa eta hipotiroidismoa, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

–Addison, Cushing, feocromozitoma eta guriin suprarrenaletako beste alterazio batzuk.

–Hipoaldosteronismo primarioa eta sekundarioa.

–Mellitus diabetesa.

–Adenomatosis endokrino anizkoitza.

–Hipoparatiroidismoa eta hiperparatiroidismoa, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

12.–Larrua, fanerak eta guriin exokrinoak:

–Larruazalaren orbainak eta prozesu kronikoak, hedapenaren, funtzionaltasunean duten eraginaren eta kokapenaren arabera, polizia baten eginkizunak betetzeko gaitasuna murrizten badute.

13.–Odola eta organo hematopoietikoak:

–Bizkarrezur-muineko aplasia, gaueko hemoglobinuria paroxistikoa, sindrome mielougalkorrak, anemia hemolitiko kronikoak, beta-talasemia anemiarekin batera.

–Linfomak, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

–Linha ugaztutzearen sindromeak, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

–Mieloma anizkoitza eta Waldeström-en gaixotasuna.

–Hemofiliak eta hemostasiaren beste nahasmendu batzuk.



–Inmunoeskasiak.

–Esplenektomia. –Tratamendu kronikoak antikoagulatzaileak (heparinak, Sintrom), interferona, kortikoideak edo eritropoietina (EPO) erabiliz.

14.–Beste batzuk:

–Amiloidosia.

–Kolagenosia.

–Lupus eritematoso sistemikoa.

–Artritis erreumatoidea.

–Esklerodermia.

–Sjögren-sindromea.

–Baskulitisa, ebaluazio-epaimahaiak baloratu beharrekoa.

–Obesitatea (GMI > 25).

15.–Ohar orokorrak:

–Baztertzeko moduko patologiak ebaluazio-epaimahaiak baloratuko ditu funtzionaltasunean duten eraginaren arabera eta polizia-eginkizunak betetzeari begirako pronostikoaren arabera.

–Edozein organoren neoplasia-prozesuetan eta transplanteetan, ebaluazio-epaimahaiak gaitasuna baloratuko du, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

–Funtzionaltasunean eragina duen edozein aparatu edo sistemaren beste edozein afekzio, baldin eta, ebaluazio-epaimahaiaren iritziz, polizia lanetan aritzea eragozten badu.